III^a JESUS ELHORRIZ KORONATUA – Soldadoek, elhorri handi batzuekin, korona bat bezala egiten dute, eta bortxatuz, makhila ukhaldika, irriz eta trufaz, Jesusen buru sakratuan ondoraino sartzen. Zer tormenta ! – *Galdegin dezagun* : URGUILUAREN ZAPHATZEA.

*Nausien Nausia belas ! odoletan,
Burreuek zaituzte errabiaz eman ;
Eta nik, ezdeusak, plazer guzietan
Bizitze labur hau nezake eraman !*

IV^a GURUTZEAREN GARRAIATZEA – Jesus, gurutze dorphea bizkarrean, Kalbarioko mendia gora badoa, erorka eta altxaka, lehertua... ezindua. Eta halere beti esti, beti pazientziaz bethea. – *Galdegin dezagun* : ATSEGABEN PAZIENTZIAREKIN HARTZEA.

*Isaak berria, Jesus ene gatik
Hartu izan duzu gurutze dorphea ;
Gogotik jasanen dut zure ondotik
Arimaz betherik, nik ere neurea.*

V^a JESUSEN HILTZEA – oinaze izigarrienen ondotik, Jesusek, gurutzearen gainean, azken hatsa ematen du azken odol xortarekin, guretzat amodioz, xoilki amodioz. – *Galdegin dezagun* : JESUS GURUTZEFIKATUAREN AMODIOA.

*Zuk osatu duzu, Jesus, gurutzean
Obra guzizkoa, gure erospena.
Erakusten duzu, horrela hiltzean,
Gure salbatzeko kharrik biziena.*

*On vous écorche sauvagement avec le fouet.
Faites que moi aussi, quelque soit le moment où je suis oppressé,
Je ne cède pas au mal.*

III^e COURONNEMENT D'EPINES – Les soldats, avec une grande épine, font comme une couronne, et en forçant à coups de bâton, riant et se moquant, l'enfoncent sur la tête sacrée de Jésus. Quels tourments !– *Demandons* : le REGRET DE NOS PECHES D'ORGUEIL.

*Maître des maîtres hélas ! Enragés,
Les bourreaux vous ont mis en sang ;
Et moi qui ne suis rien, je mènerais
Cette courte existence dans tous les plaisirs ?*

IV^e PORTEMENT DE LA CROIX– Jésus, la lourde croix sur le dos, va jusqu'au sommet du mont Calvaire, tombant et se relevant, exténué... anéanti. Et cependant toujours doux, toujours plein de patience. – *Demandons* : la PATIENCE DANS LES EPREUVES.

*Jésus, nouvel Isaac, pour moi
Vous avez pris la lourde croix ;
L'âme emplie, je supporterai volontiers
Aussi la mienne à vos côtés.*

V^e MORT DE JESUS SUR LA CROIX – après de terribles souffrances, Jésus, au sommet de la croix, rend son dernier souffle avec la dernière goutte de sang, par amour pour nous, seulement par amour. – *Demandons* : l'AMOUR DE DIEU et le SALUT DES AMES.

*Jésus, vous avez achevé sur la croix,
L'œuvre suprême, notre rédemption
En mourant ainsi, vous révélez
La plus vive ardeur pour nous sauver.*

LORIAZKO BORTZ MISTERIOAK

I^a JESUSEN PHIZTEA – Hil eta hirugarren egunean, Jesus bizirik eta lorios ilkitzen da hobitik. Halaber behar litake lehiatu bekhatorosa, laster heriotze eternaleko bidetik ateratzerat, graziazko bizirat itzultzerat. – *Galdegín dezagun* : KONBERTITZEA.

*Jesus hilik phiztu, oi zer bozkario !
Ni ere berekin phiztu nau grazian.
Oi zer ezagutza, oi zer amodio
Bihurturen diot bizitze berrian !*

II^a JESUSEN ZERURAT IGAITEA – Phiztu-ta berrogoi egunen buruan, Jesus zerurat igaiten da, bere merezimendu negurri gabekoen sariaz gozatzerat... eta guri, nahi badugu, leku baten egiterat. – *Galdegín dezagun* : ZERURATEKO GUTIZIA.

*Zohaz loriara, Jesus Jauna, zohaz
Enetzat leku bat han aldaratzerat ;
Etzaien artetik grazien laguntzaz
Helaraz nazazu loria bererat.*

III^a IZIPIRITU SAINDUAREN JAUSTEA – Mendekoste egunean, Apostoluak elgarrekin othoitzean zagotzilarik, Jesusek igortzen diote hitzeman zioten Izpiritu Saindua ; Izpiritu Sainduak argitzen ditu eta sustatzen. Othoitzaz beren ganat jautsarazten duten arimetan, gauza bera du heinka egiten. – *Galdegín dezagun* : OTHOITZARI JARRAIKITZEA.

*Izpiritu Saindu, lurrerat jautsia,
Bethea zarena zeruko indarrez :
Susta diezadazu bihotz guzia,
Erre bekít, Jauna, zu ganako kharrez.*

IV^a MARIAREN HILTZEA ETA ZERURAT ALTXATZEA – Jesus zerurat iganez geroz, Maria etzen gehiago lur huntan bizi, joan zen Jesusekin haren bihotza eta gozoa... Amodioaren indar

LES CINQ MYSTERES GLORIEUX

I^{er} RESURRECTION – Le troisième jour après sa mort, Jésus sort vivant et glorieux du tombeau. De même, le pêcheur devrait s'empresse de sortir très vite du chemin de la mort éternelle, pour retourner à l'état de grâce. – *Demandons* : la CONVERSION.

*Jésus ressuscité des morts, ô quelle joie !
Moi aussi il m'a ressuscité avec lui dans la grâce.
Ô quelle reconnaissance, ô quel amour
Lui rendrai-je dans la nouvelle vie !*

II^e ASCENSION – Quarante jours après sa résurrection, Jésus monte au ciel, pour goûter la récompense de ses mérites infinis... et, si nous le voulons, pour nous y préparer une place. – *Demandons* : l'ESPERANCE et le DESIR DU CIEL.

*Allez dans la gloire, Seigneur Jésus, allez
Mettre de côté une place pour moi ;
Parmi les ennemis, avec l'aide de la grâce,
Faites-moi parvenir à la même gloire.*

III^e PENTECOTE – Le jour de la Pentecôte, tandis que les Apôtres étaient en train de prier, Jésus leur envoie le Saint-Esprit, comme il le leur avait promis ; le Saint-Esprit les éclaire et les embrase. Il vient visiter les âmes en prière et les intelligences. – *Demandons* : CHARITE ET ZELE.

*Saint-Esprit, descendu sur la terre,
Vous qui êtes empli de la puissance du ciel :
Embrasez tous les cœurs,
Que je brûle, Seigneur, d'ardeur pour vous.*

IV^e ASSOMPTION DE LA SAINTE VIERGE – Après que Jésus fut monté au ciel, Marie ne vivait plus sur cette terre, son cœur et sa joie étaient partis avec Jésus... Par la seule force de l'amour,

xoilaz, Birjina Sainduaren arima eztiki haren gorphutzetik berexten da, eta hegaldatzen zeruetarat. Mariaren gorphutza ere laster zerurat eremana da. – *Galdegin dezagun* : HERIOTZE ON BATEN GRAZIA.

*Amodioz zare biziaz gabetzen,
Birjina Saindua, zohaz loriarat,
Nik ere neurea dudanean galtzen,
Zaren bitarteko hel nadin hartarat.*

V^a MARIAREN ZERUAN KORONATZEA – Jesusek bere ama bethiereko lorian sarrarazi ondoan, izpiritu dohatsu guziak baino gorago jarrarazten du, eta, bothere pare-gabeko batez jauntzia, zeru-lurren erreginatzat koronutzen. – *Galdegin dezagun* : MARIAREN ALDERAKO FIDANTZIA.

*Ama dohatsua, zeru gorenean,
Zure haur maiteak zaitu koronatu ;
Errespetatzen dut, ahuspez lurrean
Zure botherea : sokorri nazazu.*

L'âme de la Saint Vierge s'est doucement séparée de son corps, et s'est envolée vers le ciel. De même, le corps de Marie au aussitôt été emporté au ciel. — *Demandons* : une BONNE MORT ET la DEVOTION A MARIE.

*Par amour vous avez été dépouillée de la vie,
Sainte Vierge, venez dans la gloire,
Lorsque moi aussi, je perdrai la mienne,
Soyez mon intermédiaire pour que je parvienne là-haut.*

V^a LE COURONNEMENT DE LA SAINTE VIERGE — après que Jésus, a fait entrer sa mère dans la gloire éternelle, le Saint-Esprit l'installe plus haut que tous, et, revêtue d'une puissance sans pareille, il la couronne reine du ciel et de la terre. — *Demandons* : la PERSEVERANCE FINALE ET la CONFIANCE EN MARIE.

*Mère bienheureuse, du haut du ciel,
Votre fils bien-aimé vous a couronnée ;
Prosterné sur la terre, je me sou mets
A votre puissance : secourez-moi.*

PENITENTZIAKO SAKRAMENDUA

I. — KONTZIENTZIAKO ETSAMINA

OTHOITZA

Ene Jainkoa, nahi duzu ene bekatuen aphezari erraiterat joan nadin, haren ganik barkamenduaren ardiesteko. Bainan nola erranen diozkat, ez baditut nihaurek ezagutzen? Zato beraz, Jauna, argi zazu ene bihotza, ez dadin geldi ni baitan bekaturik, nik ezagutuko eta hastiatuko ez dudanik.

ETSAMINA

Jainkoaren manamenduetan

1° Jainko bat adora zazu, etc. — Othoitzak huts-egin? — Gaizki egin? — Elizan gaizki egon? — Erlisioñez, aphezez, gauza sainduz gaizki mintzatu? — Fedearen kontra bekatu egin, fedezko zerbeit egiaz dudan egonez? — Erlisioñearen kontrako liburutik edo kasetarik irakurtu?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz?

2° Juramenturik ez duzu, etc. — Gezurraren finkatzeko Jainkoa lekuko hartu? — Beharrik gabe zin egin? — Blasfemiorik egin? — Boturik hautsi?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz?

3° Igandeak begira zatzu, etc. — Meza Saindua huts-egin igande edo phesta-buruetan, bere faltaz? — Mezarat berantegi ethorri? — Meza gaizki segitu? — Lanean arizan egiazko beharrik gabe?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz?

SACREMENT DE PÉNITENCE

I. — EXAMEN DE CONSCIENCE

PRIERE

Mon Dieu, vous voulez que j'aie à dire mes péchés au prêtre pour obtenir à travers lui le pardon. Mais comment les lui dirai-je, si je ne les connais pas moi-même ? Venez donc, Seigneur, éclairez mon cœur, qu'il ne reste plus en moi de péché que je ne connaisse ni n'abhorre.

EXAMEN

Commandements de Dieu

1° Le vrai Dieu seul adoreras, etc. — Omission dans mes prières ? — Faites avec négligence ? — Mauvaise tenue à l'église ? — Ai-je mal parlé de la religion, du clergé, des choses saintes ? — Ai-je péché contre la foi, ai-je mis en doute une vérité de la foi ? — Ai-je eu des lectures orientées contre l'église ?

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

2° Vous ne jurerez pas, etc. — Ai-je pris Dieu à témoin pour donner crédit au mensonge ? — Serments sans nécessité ? — Ai-je commis le blasphème ? — Souhais néfastes à autrui ou à soi-même ?

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

3° Le jour du Seigneur garderas, etc. — Ai-je manqué la Sainte Messe le dimanche ou lors d'une fête d'obligation, par ma faute ? — Retard à la messe ? — Messe mal suivie ? — Travail réalisé sans véritable nécessité ?

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

4° Ait'amak ohora zatzu, etc. — Ait'amak ez aski maitatu ? — Desobeditu ? — Zinkurinaka obeditu ? Heien alderat errespetua galdu elhez... obraz ? — Heieri pena eman, heiek nahi ez bezala biziz ? — Heien hutsak agertu ? — Nausieri desobeditu ? — Errespetua galdu ?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz ?

5° Nehor obraz hilen ez duzu, etc. — Norbeit jo ? — Kolpatu ? — Nehori elhe gaixtorik erran ? Norbeitentzat herrarik atxiki ? — Gaizkirik desiratu ? — Gaizkirik egin ? — Eskandalarik eman : hitzez, obraz ? — Gaizkia norbeiti erakatsi ?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz ?

6° eta 9° Lohikeria eginen ez duzu, etc. — Garbitasunaren kontra bekatu egin : gogoz, gutiziaz, behatzez, hitzez, obraz ? — Kantu tzarrik kantatu ? — Liburu tzarrik irakurtu ? — Zinema tzarretan, dantza eta libertimendu lanjerosetan ibili ?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz ?

7° eta 10° Bertzerena ebatsiko ez duzu, etc. — Zerbeit norbeiti ebatsi ? — Burhasoeri ebatsi ? — Sal-erospenetan norbeit enganatu ? — Jokoan enganatu ? — Hatzeman dirua edo gauza gibelerat ez eman ? — Zorrak ez pagatu ? — Norbeiti zerbeit funditu ? — Bertzerena gaizki desiratu ?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz ?

8° Lekukotasunik ez duzu, etc. — Gezurrak erran ? — Laguna gaizki jujatu ? arrazoinik aski gabe ? — Medisentziarik erran ? — Kalomniarik erran ?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz ?

Elizaren manamenduetan

Phazkoak ez egin ? — Haragirik jan sori ez den egunetan beharrik gabe edo permisionerik gabe ? — Barur ez egin behar zelarik ?

4° Tes père et mère honoreras, etc. — Manque d'amour envers mes parents ? — Désobéissance ? — Obéissance en geignant ? Perte du respect dû, en paroles... en actes ? — Leur ai-je fait de la peine, par un mode de vie qu'ils réprouvent ? — fait étalage de leurs défauts ? — désobéi au supérieur ? — manqué de respect ?

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

5° Tu n'œuvreras à aucune mort, etc. — Ai-je frappé quelqu'un ? — blessé ? — mal parlé à quelqu'un ? entretenu de la haine envers quelqu'un ? — désiré du mal ? — fait du mal ? — fait scandale : en paroles, en actions ? — incité quelqu'un au mal ?

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

6° et 9° Tu ne commettras pas d'impuretés, etc. — Ai-je péché contre la pureté : en pensées, par cupidité, du regard, en paroles, en actes ? — chanté des chansons perverses ? — lu des livres pervers ? — Me suis-je rendu dans un cinéma pervers, ai-je pratiqué danse ou divertissement pervers ?

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

7° et 10° Le bien d'autrui tu ne prendras, etc. — Ai-je volé quelque chose à quelqu'un ? — volé aux parents ? — escroqué quelqu'un dans mon commerce ? — escroqué au jeu ? — trouvé de l'argent ou autre que je n'ai pas rendu ? — pas payé mes dettes ? — provoqué la ruine de quelqu'un ? — désiré le bien d'autrui injustement ?

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

8° De ton prochain ne médiras, etc. — Ai-je menti ? — mal jugé mon prochain ? sans raison valable ? — médit ? — calomnié ?

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

Commandements de l'Eglise

N'ai-je pas fait mes Pâques ? — Ai-je mangé de la viande un jour défendu, sans nécessité ni dérogation ? — Ai-je manqué au jeûne lorsqu'il était prescrit ?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz ?

Bekatu Kapitaletan

Urgulua. — Urgulutsu izan, bere burua estimatuz bertzeak baino gehiago, bere burua agertu beharrez, bere burhasoez ahalgetuz ?

Zikoizkeria. — Ontasuneri atxikiegia izan ?

Jelosia. — Lagunari gertatu gaitzaz atsegin hartu ? — Hari gertatu ongiaz trixtatu ?

Gormandiza. — Sobera jan edo edan ? — Mozkortu ?

Kolera. - Sobera khexatu ?

Alferkeria. — Denbora galdu ? Manatu lana ez egin, gaizki egin, lazoki egin ?

Horiatarik bakotxa zonbat aldiz ?

Beha ere zure egun guzietako eginbideak nola bethe ditutzun.

II. — KONTRIZIONEA ETA XEDE ZINA

Bekatuak ez ditazke barka ez baduzu heien urrikia, eta ez baduzu hartzen xede zina hetan berriz ez erortzeko.

Urriki eta xede horien azkartzeko, ibil gogoan :

hiltzea ;

ifernua ;

zerua ;

Jesusen kurutzean hiltzea...

Othoitz egin Jesusi eta Andredena Mariari, eta erran oraidanik Kontrizionezko akta.

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

Péchés Capitaux

Orgueil. — Ai-je été orgueilleux, me suis-je estimé supérieur aux autres, ayant besoin de paraître, honte de mes parents ?

Avarice. — Ai-je été trop attaché aux biens matériels ?

Jalousie. — Me suis-je réjoui des malheurs d'autrui ? — attristé de ses succès ?

Gourmandise. — Excès dans le boire ou le manger ? — Ivresse ?

Colère. — Me suis-je trop mis en colère ?

Paresse. — Temps perdu ? Travail demandé non réalisé, mal fait, fait négligemment ?

Parmi ces péchés-là, combien de fois chacun ?

Examinez également comment vous accomplissez vos devoirs d'état (du quotidien).

II. — CONTRITION ET FERME PROPOS

Les péchés ne peuvent pas être pardonnés si vous n'en avez pas le regret, et si vous ne prenez pas la ferme résolution de n'y pas succomber à nouveau.

Pour affermir ces regrets et résolution, méditez sur :

la mort ;

l'enfer ;

le ciel ;

la mort de Jésus sur la croix...

Priez Jésus et la Sainte Vierge, et dites dès à présent l'acte de Contrition.

III. — KOFESIOA

Kurutzearen seinalea egin ondoan, erran :

Benedika nezazu, ene Aita, zeren egin baitu bekatu.

Gero :

Kofesatzen nitzaio, « ene faltaz » hitz horietaraino.

Gero :

Noizkoa den zure azken kofesioa ; absoluzonea errezebitu zinuenetz eta penitentzia egin.

Erran bekatuak, DEUS GORDE GABE, *ahalaz zure baitarik* ; aphezaren galdeeri ihardets leialki, erranez : « Aita » eta ez : « Jauna ».

Gero : « Kofesatzen nitzaio » burura, arthoski entzun aphezaren erranak, eta harek absoluzonea emaitan, emeki eta bihotzaren erditik erran *Kontrizionezko Akta*.

IV. — PENITENTZIA

Zure lekurat itzuli-eta, errazu ahal bezain laster, bainan ez lasterka, aphezak eman penitentzia.

Eskerrak bihur Jainkoari eta Ama Birjinari, eta elizatik athera Sakramendu Saindua adoratu ondoan.

III. — CONFESSION

Après avoir fait le signe de croix, dire :

Bénissez-moi, mon Père, parce que j'ai péché.

Ensuite :

Je confesse, jusqu'aux mots « c'est ma faute ».

Ensuite :

De quand date votre dernière confession ; si vous avez reçu l'absolution et accompli votre pénitence.

Dire les péchés, SANS RIEN CACHER, autant qu'il vous est possible ; répondez avec franchise aux questions du prêtre, en disant : « Père » et non : « Monsieur ».

Ensuite : « Je confesse » jusqu'à la fin, écouter attentivement l'exhortation du prêtre, et tandis qu'il donne l'absolution, dire lentement et du fond du cœur l'*Acte de Contrition*.

IV. — PÉNITENCE

De retour à votre place, dites le plus rapidement possible, mais surtout pas de manière précipitée, la pénitence qu'a donnée le prêtre.

Rendez grâce à Dieu et à la Sainte Vierge, et sortez de l'église après avoir adoré le Saint-Sacrement.

KOMINIATZEN DELARIK

KOMINIONE AINTZINEKO AKTAK

FEDEZKO AKTA. — Jesu-Krixto ene Jauna, sinesten dut zinez hor zarela egiazki Aldareko Sakramenduan, eta zure errezebitzerat noala komunione Sainduan.

ADORAZIONEZKO AKTA. — Ene Jesus, adoratzen zaitut hemen, ogiaren itxuraz gordea. Ezagutzen dut ene Kreatzailea eta Jainkoa zarela.

UMILTASUNEZKO ETA KONTRIZIONEZKO AKTA. — Jauna, ez dut merezi ene baitan sar zaiten, hanbat ofentsatu zaitudan ondoan, baina errazu bakarrik hitz bat, eta ene arima sendatua izanen da. Urrikalmenduzko hitz bat errazu, eta barka-zkidatzu ene bekatuak ; bihotzetik hastiatzen ditut.

ESPERANTZAZKO AKTA. — Salbatzaile maitea, esperantza dut ni baitan egoiterat jinez, ene arima garbituko duzula, eta betheko zure graziez eta amodioaz.

AMODIOZKO AKTA. — O Jesus, ene ontasun bakarra, maitatu nauzu zure haragiaz hazi nahirainokoan ; maite zaitut ene bihotz guziaz, ene arima guziaz, ene indar guziez ; nahi naiz bizi eta hil zure amodio sainduan.

DESIRKUNDEZKO AKTA. — Zato, Jesus, zato ene bihotzerat ; libra zazu bere gaitz guzietarik ; bethe zazu graziez ; khartsuki desiratzen dut zure errezebitzea.

POUR LA COMMUNION

PRIÈRE AVANT LA COMMUNION

ACTE DE FOI. — Jésus-Christ mon Seigneur, je crois fermement que vous êtes véritablement présent là, dans le Sacrement de l'Autel, et que je vais vous recevoir dans la Sainte communion.

ACTE D'ADORATION. — Mon Jésus, je vous adore ici, sous l'apparence d'une hostie. Je suis conscient que vous êtes mon Créateur et mon Dieu.

ACTE D'HUMILITE ET DE CONTRITION. — Seigneur, je ne mérite pas que vous entriez en moi, après vous avoir tant offensé, mais dites seulement une parole, et mon âme sera guérie. Dites un mot de miséricorde, et pardonnez-moi mes péchés ; je les rejette du fond du cœur.

ACTE D'ESPERANCE. — Ô mon Sauveur, j'espère qu'en venant demeurer en moi, vous laverez mon âme, et que vous l'emplirez de votre grâce et de votre amour.

ACTE DE CHARITE. — O Jésus, mon seul bien, vous m'avez aimé jusqu'à vouloir me nourrir de votre chair ; je vous aime de tout mon cœur, de toute mon âme et de toute ma force ; je veux vivre et mourir dans votre saint amour.

ACTE DE DESIR. — Venez, Jésus, venez en mon cœur ; libérez-le de tous ses maux ; emplissez-le de grâce ; je désire ardemment vous recevoir.

KOMINIONE ONDOKO AKTAK

ADORAZIONEZKO AKTA. — Ene Jainkoa eta ene Salbatzailea, adoratzten zaitut ene bihotzean zarelarik ; eta juntatzen naiz Aingeruek eta Sainduak zure ohoratzeko zeruan bihurtzen daitzuten adorationeri.

ESKER ONEZKO AKTA. — Eskerrak deraitzut ene Salbatzaile maitea, zeren nitarat jin nahi izan zaren Komunione Saindu huntan. Zer bihurtuko derautzut zure ongi-egin guzientzat ?

OFREIMENEZKO AKTA. — Jesus Jauna, emaiten nitzaitzu naizen guzia osoki, zu niri eman zaren bezala ; egidazu grazia, zuretzat baizik ez bizitzeko.

AMODIOZKO AKTA. — Ene Jesus ona, maite zaitut ahalaz khartsuki ; zure amodioaren suak bero, erre, suntsi dezala ene bihotza.

XEDE ZINEZKO ETA GALDEZKO AKTA. — Ene Jainkoa, hartzen dut xede zin bat, zuk hastio ditutzun guzietarik begiratzeko, eta ni-ganik galdatzen ditutzun guzien egiteko. Egizu zure graziaz, maita zaitzadan eta lorifika, ene biziak dirauno eta mende guzietan.

PRIÈRES APRÈS LA COMMUNION

ACTE D'ADORATION. — Mon Dieu et mon Sauveur, je vous adore parce que vous êtes dans mon cœur ; et je suis uni à l'adoration que vous rendent les Anges et les Saints pour vous glorifier.

ACTE DE REMERCIEMENT. — Je vous remercie ô mon Sauveur, parce que vous avez voulu venir jusqu'à moi dans cette Sainte Communion. Que vous rendrai-je pour tous vos bienfaits ?

ACTE D'OFFRANDE. — Seigneur Jésus, je me donne à vous entièrement, tout ce que je suis, comme vous vous êtes donné à moi ; donnez-moi la grâce de ne vivre qu'avec vous.

ACTE DE CHARITE. — Mon bon Jésus, je vous aime aussi ardemment que possible ; que le feu de votre amour réchauffe, brûle, soumette mon cœur.

ACTE DE FERME RESOLUTION ET DE DEMANDE. — Mon Dieu, je prends la ferme résolution de me garder de tout ce qui vous déplaît, et de faire tout ce que vous attendez de moi. Faites par votre grâce, que je vous aime et vous glorifie, tant que dure ma vie et pour l'éternité.

OTHOITZ BALIOSA

Indulientzia oso bat irabazten da, kurutzearen aintzinean erraiten delarik othoitz hau.

✠ Huna, o Jesus ona eta guziz ezia, nun naizen zure aintzinean belhauniko emana; eta arimako khar handienarekin othoizten zaitut eta bietan othoizten, barna sar detzatzun ene bihotzean fedezko, esperantzazko eta karitatezko sendimendurik bizienak, ene bekatuen egiazko urrikia, eta gehiago ez egiteko xederik azkarrena : nik, bihotzeko amodio eta min handi batekin, zure bortz zauriak ene baitan ikusten ditudalarik eta gogoan erabiltzen begien aintzinean atxikiz zutaz Dabid Profetak zure ahoan ezartzen zituen hitz hauk :

« Zilhatu dituzte ene eskuak eta ene oinak, kondatu ene hezur guziak. »

Erran gero : Gure Aita, Agur Maria, eta Gloria, Aita Sainduaren xedeetarat.

PRIERE SPECIALE

Une indulgence plénière est accordée lorsqu'on récite cette prière devant la croix.

✠ Ô bon et très doux Jésus, je me prosterne à genoux en votre présence ; je vous prie et je vous conjure avec toute la ferveur de mon âme, de daigner graver dans mon cœur de vifs sentiments de foi, d'espérance et de charité, un vrai repentir de mes péchés, et une très ferme volonté de m'en corriger, pendant que je considère en moi-même et que je contemple en esprit vos cinq plaies, avec une grande affliction et une grande douleur, ayant devant les yeux ces paroles, que le prophète David vous appliquait déjà en les mettant sur vos lèvres, ô bon Jésus :

« Ils ont percé mes mains et mes pieds ; ils ont compté tous mes os. »

Dire ensuite : Notre Père, Je vous salue Marie, et Gloria, aux intentions du Saint-Père.

MEZA SAINDUA

IGANDETAKO MEZA NAUSI AINTZINEAN

Asperges me, Domine, hyssopo,
et mundabor ; lavabis me et super
nivem dealbabor.

Miserere mei, Deus, secundum
magnam misericordiam tuam.

℣. Gloria Patri... Asperges
me...

Ixur zadazu ur benedikatua,
Jauna, eta garbituko nu ; garbi
nezazu eta elhurra baino xuriago
izanen naiz.

Urrikal zaite nitaz, Jainko
amultsua.

Phazko denboran

Vidi aquam egredientem de
templo a latere dextro, alleluia ;
et omnes ad quos pervenit aqua
ista salvi facti sunt et dicent
alleluia, alleluia.

Confitemini Domino quoniam
bonus, quoniam in sæculum
misericordia ejus.

℣. Gloria Patri... Vidi.

℣. Ostende nobis, Domine,
misericordiam tuam (alleluia).

℞. Et salutare tuum da nobis
(alleluia).

℣. Domine, exaudi orationem
meam.

℞. Et clamor meus ad te veniat.

℣. Dominus vobiscum.

℞. Et cum spiritu tuo.

Oremus. — Exaudi nos, Domine
sancte, Pater omnipotens, æterne
Deus, et mittere digneris sanctum
angelum tuum de cælis, qui
custodiat, foveat, protegat, visitet

Zure elizan kausitzen den urak,
hunki guziak ditu salbatzen eta
bozkariatzen. Alleluia.

Gorets zazue Jauna, zeren ona
da, eta urrikalmendutsua mende-
ren mendetan.

Erakuts-aguzu, Jauna, zure
bihotz ona (alleluia).

Eta eman salbamendua
(alleluia).

Adi zazu, Jauna, ene othoitza.

Eta zure ganat hel dadila ene
oihua.

Jauna zuekin !

Bai eta zurekin ere !

Othoitza. — Adi gaitzazu, Jaun
saindua, Aita botheretsua,
bethiereko Jainkoa, eta igor-
aguzu othoi zerutik zure
aingerua, ezliza huntan diren

atque defendat omnes habitantes
in hoc habitaculo. Per Christum
Dominum nostrum. Amen.

guziak begira ditzan, susta, zaint
eta azkart, Jesu-Krixtoren bidez.
Halabiz.

MEZA HASTE

In nomine Patris ✠ et Filii et
Spiritus Sancti. Amen. Introibo
ad altare Dei.

℞. AD DEUM QUI LÆTIFICAT
JUVENTUTEM MEAM.

Ps. ̎. Judica me, Deus, et
discerne causam meam de gente
non sancta : ab homine iniquo, et
doloso erue me.

℞. QUIA TU ES, DEUS, FORTI-
TUDO MEA : † QUARE ME
REPULISTI, † ET QUARE TRISTIS
INCEDO, DUM AFFLIGIT ME
INIMICUS ?

̎. Emitte lucem tuam et
veritatem tuam : ipsa me deduxe-
runt, et adduxerunt in montem
sanctum tuum, et in tabernacula
tua.

℞. ET INTROIBO AD ALTARE
DEI : † AD DEUM QUI LÆTIFICAT
JUVENTUTEM MEAM.

̎. Confitebor tibi in cithara,
Deus, Deus meus : † quare tristis
es, anima mea, et quare conturbas
me ?

℞. SPERA IN DEO, QUONIAM
ADHUC CONFITEBOR ILLI : †
SALUTARE VULTUS MEI, ET DEUS
MEUS.

̎. Gloria Patri et Filio et
Spiritu Sancto.

Aitaren eta Semearen eta
Izpiritu Sainduaren izenean.
Halabiz. Jainkoaren aldarerat
iganen naiz.

Ene gaztetasun bozkariatzen
duen Jainkoaren ganat.

Emadazu ene zuzena, oi ene
Jainkoa eta ez nezazu fedegabekin
batean ezar. Gizon makhur eta
maltzuraren aztaparretarik
athera nezazu.

Zu zira, Jainkoa, ene zaintzalea :
zertako nauzu bada baztertzen ?
Zertako behar dut atsegabetan
bizi, etsaiak lehertua ?

Igor-zkitzu zure argia eta zure
egia ; lagunt nezaten eta helaraz
zure mendi saindura, zure
egoitzarat.

Eta iganen naiz Jainkoaren
aldarerat ; ene gaztetasuna boz-
kariatzen duen Jainkoaren ganat.

Soinuarekin goretsiko zaitut
Jainkoa, Jainko maitea. Zertako
zira hoin hits, ene arima ?
Zertako khexu ?

Fida zaite Jainkoari, goretsiko
baitut oraino : hura da ene salba
tzailea, ene Jainkoa.

Ohore Aitari eta Semeari eta
Izpiritu Sainduari.

℞. SICUT ERAT IN PRINCIPIO ET
NUNC ET SEMPER, ET IN SÆCULA
SÆCULORUM. AMEN.

Ant. √. Introibo ad altare Dei.

℞. Ad Deum qui lætificat
juventutem meam.

√. Adjutorium nostrum ✠ in
nomine Domini.

℞. QUI FECIT CÆLUM ET
TERRAM.

℞. Confiteor Deo omnipotenti,
beatæ Mariæ, semper Virgini,
beato Michaeli Archangelo, beato
Joanni Baptistæ, sanctis
Apostolis Petro et Paulo,
omnibus Sanctis et vobis, fratres,
quia peccavi nimis cogitatione,
verbo, et opere, mea culpa, mea
culpa, mea maxima culpa. Ideo
precor beatam Mariam semper
Virginem, beatum Michaellem
Archangelum, beatum Joannem
Baptistam, sanctos apostolos,
Petrum et Paulum, omnes
sanctos, et vos fratres, orare pro
me ad Dominum Deum nostrum.

MISEREATUR TUI OMNIPOTENS
DEUS, ET DIMISSIS PECCATIS
TUIS, PERDUCAT TE AD VITAM
ÆTERNAM.

Amen.

CONFITEOR DEO OMNIPOTEN-
TI,
BEATÆ MARIÆ SEMPER
VIRGINI,
BEATO MICHAELI ARCHANGE-
LO,
BEATO JOANNI BAPTISTÆ,
SANCTIS APOSTOLIS PETRO ET
PAULO,

Lehen bezala orai eta bethi ere,
menderen mendetan. Halabiz.

Jainkoaren aldarerat iganen
naiz.

Ene gaztetasuna bozkaria-tzen
duen Jainkoaren ganat.

Jainkoaren izena da gure
laguntza.

Zerua eta lurra harek ditu
eginak.

*Aphezak
erraiten du*

« Kofesatzen nitzaio »

Ihardesten zaio :

Jainko guziz botheretsuari urri-
kal zakizkola, eta zure bekhatuak
barkaturik, helaraz zaitzala bizi-
tze eternalera.

Halabiz.

Kofesatzen nitzaio Jainko Aita
bothere guzia duenari,
Maria bethi Birjina dohatsuari,

Mikael Arkanjelu dohatsuari,

Joanes Batixta dohatsuari,
Petri eta Paulo Apostolu
Sainduei,

OMNIBUS SANCTIS,
ET TIBI, PATER,
QUIA PECCAUI NIMIS,
COGITATIONE, VERBO ET
OPERE.

MEA CULPA — MEA CULPA —
MEA MAXIMA CULPA.

IDEO PRECOR
BEATAM MARIAM SEMPER
VIRGINEM,
BEATUM MICHAЕLEM ARCHAN-
GELUM,

BEATUM JOANNEM BAPTISTAM,
SANCTOS APOSTOLOS PETRUM
ET PAULUM,

OMNES SANCTOS
ET TE, PATER,
ORARE PRO ME AD DOMINUM
DEUM NOSTRUM.

Misereatur vestri omnipotens
Deus et dimissis peccatis vestris,
perducat vos ad vitam æternam.

AMEN.

Indulgentiam, ✠ absolutionem
et remissionem peccatorum
nostro-rum tribuat . nobis . omni-
potens et misericors Dominus.

AMEN.

Deus tu conversus vivificabis
nos.

ET PLEBS TUA LÆTABITUR IN
TE.

Ostende nobis, Domine,
misericordiam tuam.

ET SALUTARE TUUM DA NOBIS.

Domine, exaudi orationem
meam.

ET CLAMOR MEUS AD TE
VENIAT.

Dominus vobiscum.

Saindu guziei
eta zuri, ene Aita,
zeren egin baitut sobera bekatu,
gogoz, hitzez eta obraz :

ene faltaz, ene faltaz, ene falta
handiaz.

Hortakotz othoitz egiten diot
Maria bethi Birjina dohatsuari,

Mikael Arkanjelu dohatsuari,

Joanes Batixta dohatsuari,
Petri eta Paulo Apostolu
Sainduei,

Saindu guziei
eta zuri, ene Aita,
egin dezozuen enetzat othoitz
gure Jainko Jaunari.

Jainko guziz boteretsuari
urrikal gakizkola, eta gure
bekhatuak barkaturik helaraz
gaitzala bizitze eternalera.

Halabiz.

Gure bekatuen barkamendua,
barkamendu osoa eman dezagula
Jainko guziz botheretsu eta
urrikalmendutsuak.

Halabiz.

Jainko Jauna itzul zaite gure
alde, phiztuko gaituzu.

Eta bozkariatuko dira zure
haurrak zuri esker.

Erakuts-aguzu, Jauna, zure
bihotz ona.

Eta eman salbamendua.

Adi zazu, Jauna, ene othoitza.

Zure gana hel dadila ene oihua.

Jauna zuekin !

ET CUM SPIRITU TUO.

| Bai eta zurekin ere !

Aldarearen erdian

Khen othoi, Jauna, gure bihotzetarik nahaskeria guziak, arima garbi sar gaiten Jainkoaren egoitza sainduan.

Beren erlekiak hemen dituzten sainduen eta bertze guzien bidez, barkazkidazu, othoi, Jauna, ene bekatu guziak.

Kyrie Eleison

Kyrie, eleison,
KYRIE, ELEISON,
Kyrie, eleison,
CHRISTE, ELEISON,
Christe, eleison,
CHRISTE, ELEISON,
Kyrie, eleison,
KYRIE, ELEISON,
Kyrie, eleison.

Jauna, urrikal zakizkigu,
Jauna, urrikal zakizkigu,
Jauna, urrikal zakizkigu.
Krixto, urrikal zakizkigu,
Krixto, urrikal zakizkigu,
Krixto, urrikal zakizkigu,
Jauna, urrikal zakizkigu,
Jauna, urrikal zakizkigu,
Jauna, urrikal zakizkigu.

Gloria in excelsis

Gloria in excelsis Deo, et in
terra pax hominibus bonæ
voluntatis.

Laudamus te.

Benedicimus te.

Adoramus te.

Glorificamus te.

Gratias agimus tibi propter
magnam gloriam tuam.

Domine Deus, Rex cælestis,
Deus Pater omnipotens.

Domine Fili unigenite, Jesu
Christe.

Domine Deus, Agnus Dei,
Filius Patris.

Ohore Jainkoari zeru gorenetan
eta bakea lur huntan xede oneko
gizoneri.

Laudatzen zaitugu.

Benedikatzen.

Adoratzen.

Goresten.

Eskerrak bihurtzen zure ospe
guziarentzat.

Jainko Jauna, zeruetako Errege,
Jainko Aita guziz botheretsua.

Jainko Seme Bakarra, Jesu-
Krixto.

Jainko Jauna, Jainkoareri Bildo-
tsa, Jainko Aitaren Semea.

Qui tollis peccata mundi,
miserere nobis.

Qui tollis peccata mundi,
suscipe deprecationem nostram.

Qui sedes ad dexteram Patris,
miserere nobis.

Quoniam tu solus sanctus.

Tu solus Dominus.

Tu solus altissimus, Jesu
Christe.

Cum Sancto Spiritu in gloria
Dei Patris.

Amen.

Munduaren bekatuak zure gain
hartzen dituzuna, urrikal zakiz-
kigu.

Munduaren bekatuak zure gain
hartzen dituzuna, adi zazu gure
othoitza.

Jainko Aitaren eskuinean
zaudena, urrikal zakizkigu.

Zu bakarrik baitzira saildua.

Zu bakarrik Jauna.

Zu bakarrik osoki gora, Jesu
Krixto.

Izpiritu Sainduarekin Jainko
Aitaren lorian.

Halabiz.

Othoitza. — Jainko Jauna, Sakramendu miresgarri huntan zure
Pasionearen orhoitzapena utzi daukuzu ; egizu, othoi, zure Gorputz eta
Odolaren mixterio saildua ohoratuz, Erospeneko ondorioak bethi balia
ditzagun.

Birjina Maria, eta egun ohoratzen ditugun Sailduak, othoitz egizue
guretzat.

Aphezak othoitza bururatzearekin, ihardesten da : AMEN.

Epixtola

Profetek eta Apostoluek helarazi dauzkigute Jainkoak gure argitzeko
eman erakaspenak. Erakaspen horiek, egun, Eliza Sailduak dauzkigu
emaiten : adi dezagun haren boza, jarraik gaiten haren erraner. Elizatik
kanpo ez da salbamendurik.

Ebanjelioa

Othoitza. — Garbi ene bihotz ezpainak, Jainko botheretsua ; Isaias
profetaren ezpainak ikhatz gorriarekin garbitu zinituen bezala, garbi
zazu ere, othoi, ene arima behar bezala erran dezadan zure Ebanjelio
saildua.

Othoi Jauna, benedika nezazu.

Ene bihotz ezpainetan izan bedi Jainkoa, behar eta gisa den bezala erran dezadan haren Ebanjelio saildua : Aitaren eta Semearen eta Izpiritu Sainduaren izenean. Halabiz.

Dominus vobiscum.	Jauna zuekin !
ET CUM SPIRITU TUO.	Bai eta zurekin ere !
✠ Sequentia Sancti Evangelii secundum N...	N... Sainduak moldatu Ebanje- lioaren segida.
GLORIA TIBI, DOMINE.	Ohore zuri, Jauna !

Ebanjelioa (J. Joanes VI, 56-59). — Egun hartan, Jesusek erran zioten Judueri : « Ene haragia egiazki janhari bat da eta ene odola egiazki edari bat. Nork ere jaten baitu ene haragia eta edaten ene odola, hura ene baitan dago eta ni haren baitan. Ni, ene Aita bizi denak igorria, ene Aitaz bizi nizen bezala, halaber ni jaten nuena nitan biziko da. Huna zerutik jautsi ogia. Ez zuen aitek bortuan jan zuten hura bezalakoa eta gero hil baitziren. Ogi huntarik jaten duenak badu bethiko bizia. »

Credo

Credo in unum Deum.	Sinhesten dut Jainko bakar,
Patrem omnipotentem, factorum coeli et terræ, visibillum omnium et invisibillum.	Aita guziz boheretsu, zeru- lurren, ageri diren eta ageri ez diren guzien egilea baitan.
Et in unum Dominum Jesum Christum, Filium Dei unigenitum.	Eta Jesu Kristo Jaun bakar, Jainkoaren Seme bakar,
Et ex Patre natum ante omnia sæcula.	Mende guziez aintzin Aitaren ganik sortua dena baitan.
Deum de Deo, lumen de lumine, Deum verum de Deo vero.	Jainkoaren ganikako Jainkoa da, argiaren ganikako argia, Jainko egiazkoaren ganikako Jainko egiazkoa.
Genitum, non factum, consubstantialem Patri, per quem omnia facta sunt.	Ethorkikoa da, bainan ez egina, Aitaren izaite berekoa ; oro hak eginak dire.
Qui propter nos homines, et propter nostram salutem descendit de cælis.	Gu gizonen gatik eta gure salbatzeko, jautsi da zerutik.

*Et incarnatus est de Spiritu sancto
ex Maria Virgine, et homo factus est.*

Crucifixus etiam pro nobis : sub
Pontio Pilato passus, et sepultus
est.

Et resurrexit tertia die,
secundum Scripturas.

Et ascendit in cœlum, sedet ad
dexteram Patris.

Et iterum venturus est cum
gloria, iudicare vivos et mortuos,
cujus regni non erit finis.

Et in Spiritum sanctum,
Dominum, et vivificantem, qui ex
Patre Filioque procedit.

Qui cum Patre et Filio simul
adoratur, et conglorificatur, qui
locutus est per Prophetas.

Et unam, sanctam, catholicam,
et apostolicam Ecclesiam.

Confiteor unum baptisma in
remissionem peccatorum.

Et expecto resurrectionem
mortuorum.

Et vitam venturi sæculi.

Amen.

*Izpiritu-Sainduaren ariaz gor-
puztu da Maria Birjina ganik eta
gizon egin da.*

Gure gatik oraino izan da
Kurutzefikatua, oinhazkatua
Ponzio Pilatusen egunetan eta
ehortzia.

Liburu Sainduen arabera
hiletarik phiztu da hirugarren
egunean.

Eta igan da zerurat, jarri da
Aitaren eskuinean.

Eta berriz jitekoa da ospeekin
bizien eta hilen jujatzerat, eta
haren erregetasuna ez da geldituko.

Eta sinesten dut Izpiritu-
Saindu, Jaun eta biziaren emaila,
Aitaren bai eta Semearen ganik
dathorrena baitan.

Aitarekin eta Semearekin
batean adoratua da eta goretsia,
profeten ahoz mintzatu da.

Sinhesten dut Eliza bakar,
saindu, Katoliko eta apostolikoa
baitan.

Aitortzen dut bataio bat dela
bakarrik bekatuen barkamendu-
kotzat.

Eta igurikatzen dut hilen berriz
phiztea,

Eta ethortezkoa den mendeko
bizitzea.

Halabiz.

ESKAINITZA (OFERTORIOA)

Dominus vobiscum.
ET CUM SPIRITU TUO.
Oremus.

Jauna zuekin !
Bai eta zurekin ere !
Othoitz egin dezagun.

Ogiaren eskaintzea

Onhar-azu, Aita dohatsu, Jainko guziz botheretsu eta bethierekoa, Ostia garbi hau. Nik, zure zerbitzari xumeak, dautzut eskaintzen, zuri, ene Jainko egiazkoa, ene ezin kondatuzko bekatu, huts eta lazakerientzat, hemen diren guzientzat eta bertze girixtino bizi edo hilentzat, eni eta hauieri balia dakigun bethiereko biziari buruz. Halabiz.

Ur eta arnoaren nahastea

Jainko Jauna, hain ederki gizona egin ondoan, zonbat ederkiago ez duzu erosi! Egizu ur eta arno hauien nahastekatzearen arabera zure Seme Jesu-Krixto gure Jaunaren Jainkotasunean parte ukan dezagun, harek ere gure gizontasunean parte ukan nahi izan baitu, zurekin Errege dagolarik Izpiritu Sainduarekin batean menderen mendetan.

Arnoaren eskaintzea

Eskaintzen dautzugu, Jauna, salbamenduko kalitza, zure bihotz onari galdatuz onhar dezazun zure aintzinean usain on bat bezala gure eta mundu guziaren salbamendukotzat.

Gogoz aphaldurik eta bihotzez urrikaldurik, heldu gitzaizkitzu, Jauna, onhar gaitzazun eta gure egungo eskaintzak atsegin egin diezazun.

Zato, Saindutaile botheretsua, Jainko bethierekoa, eta benedika zazu zure izenean egiten dugun eskaintza hau.

Eskuen ikuztea

Gizon zuzenekin ikuziko ditut eskuak; zure aldare ondoan egonen naiz, ene Jainkoa.

Zure laudorioen kantatzea eta zure mirakuiluen kondatzea gatik.

Lakhet zait, ene Jainkoa, zure etxean zure loria dagon tokian egoitea.

Ez utz galtzerat ene arima bekhatosenarekin, ene bizia gizon hiltzalenarekin.

Eskuetan daukate beren bekatua, esku eskuinean saria.

Bainan ni garbi nabila ; libra nezazu eta urrikal zakizkit.

Bide xuxenean daude ene oinak ; Jauna benedikatuko dut bilkuren erdian.

Ohore Aitari eta Semeari eta Izpiritu Sainduari.

Lehen bezala orai eta bethi ere, menderen mendetan. Halabiz.

Trinitate Sainduari

Onhar-azu, Trinitate Saindua, eskaintza hau. Jesu-Krixtoaren hiltzearen, phiztearen eta zerurat igaitearen orhoitzapenetan eskaintzen dautzugu ; bai eta ere Birjina Maria dohatsuaren, Jondoni Joani Batixtaren, Petri eta Paulo Apostolu sailduen, hauien eta bertze saildu guzien ohoretan ; horien ohoratzea eta gure salbatzea gatik ; lur huntan ohoratzen ditugunak lagunt gaitzaten zerutik.

Othoitz galdea

Orate, fratres, ut meum ac vestrum sacrificium acceptabile fiat apud Deum Patrem omnipotentem.

℞. SUSCIPIAT DOMINUS SACRIFICIUM DE MANIBUS TUIS AD LAUDEM ET GLORIAM NOMINIS SUI, AD UTILITATEM QUOQUE NOSTRAM TOTIUSQUE ECCLESIAE SUÆ SANCTÆ.

Othoitz egizue, ene haurrideak, zuen eta ene eskaintza onhar dezan Jainko Aita botheretsuak.

Jaunak onhar dezala eskaintza hori zure eskuetarik, bere Izenaren ohoretan, gure eta Eliza Sainduaren onetan.

Hemen othoitz egiten da aphur bat ixilik egunari doazkon xedetarat.

Prefazioa

Per omnia sæcula sæculorum
 AMEN.
 Dominus vobiscum.
 ET CUM SPIRITU TUO.
 Sursum corda.
 HABEMUS AD DOMINUM.
 Gratias agamus Domino
 Deo nostro.
 DIGNUM ET JUSTUM EST.

Menderen mendetan.
 Halabiz.
 Jauna zuekin !
 Bai eta zurekin ere !
 Gora bihotzak !
 Jainkoa baitan dauzkagu.
 Eskerrak gure Jainko Jaunari.
 Behar eta zuzen da.

Bai behar eta zuzen da, on eta salbagarri guk bethi eta orotan zuri eskerren bihurtzea, gure Jaun saindua, Aita botheretsua, Jainko bethierekoa, Jesu-Krixto gure Jaunaren bidez. Haren bidez dute zure nausitasuna goستن aingeruek. Zerueta egoiliar guziek, laudorio berak dituzte batean errepikatzen. Gure kantuak ere onhar-zkitzu, othoi, heienekin betan, umil umila othoitz zaitzagun erranez :

Sanctus

Sanctus, Sanctus, Sanctus,
 Dominus Deus Sabaoth. Pleni
 sunt cœli et terra gloria tua.
 Hozanna in excelsis !
 Benedictus qui venit in nomine
 Domini. Hozanna in excelsis !

Saindu, Saindu, Saindu da
 Jauna, armaden Jainkoa. Zeru
 lurak haren loriak bethetzen
 ditu. Gora zeru gorenetaraino !
 Benedikatua izan bedi Jaunaren
 izenean heldu dena. Gora zeru
 gorenetaraino !

SAGARA

Zure Seme Jesu Krixto gure Jaunaren bidez, umilki othoizten zaitugu, Aita guziz ezta ; emaitza, eskaintza, ostia saindu eta garbi hauk onhar eta benedika ditzazun galdatzen dautzugu. Eskaintzen dauzkitzugu lehen lehenik zure Eliza saindu katolikoarentzat : emozu bakea eta batasuna, zaint zazu eta begira munduko bazter guzietan, gure Aita Sainduarekin, gure Aphezpikuarekin eta Apostoluen fede xuxena atxiki duten guziekin batean.

Bizien orhoitzapena

Orhoit zaitte, Jauna, zure zerbitzarietz... *holakoaz eta halakoaz...* eta hemen diren guziez ; horien fedea eta khartsutasuna ezagutzen dituzu ; horientzat dautzugu eskaintzen meza hau ; edo ez, berek dautzute eskaintzen berentzat eta beren ahaide adixkidentzat ; beren arimaren onetan igurikatzen dituzte salbamendua eta osagarria eta, bethiereko eta egiazko Jainkoa, zuri hitzemanak obratzen dituzte.

Sainduen othoitzak

Guziek elgarrekin ohoratzen ditugu : lehen lehenik Birjina Maria dohatsua ; Jesu-Kristo gure Jainko Jaunaren Ama, baina ere zure Apostolu eta Martir dohatsuak : Petri eta Paulo, Andreas, Jakobe, Joanes, Tomas, Jakobe, Filipe, Bartolome, Matiu, Zimun, Tadeas, Lino, Klet, Klemente, Zisto, Kornelio, Xipirine, Laurendi, Krizogoni, Joanes eta Paulo, Kosma eta Damian, eta zure saindu guziak ; heien merezimenduek eta othoitzek ardiets diezagutela orotako zure laguntza botheretsua, Jesu-Krixto gure Jaunaren bidez. Halabiz.

Guk beraz, zure zerbitzariak, eta ere zure haur guziek egiten dautzugun eskaintza hau, onhar-azu gure bekatuen ordaintzaz ; finka gaitzazu zure bakean, bethiereko ifernutik begira eta zuk hautatuen artean konda, Jesu Krixto gure Jaunaren bidez.

Othoi, Jainko Jauna, benedika zazu eskaintza hau, onhar, onhets, behar bezala zuhaurek zuretzat on egin, guretzat izan dadin zure Seme maite, Jesu-Krixto gure Jaunaren gorputza eta Odola.

Kontsekrazioa

Berak pairatzeko bezperan bere esku saindu eta sakratuetan hartu zuen ogia, eta begiak zerurat altxatuz bere Aita guziz botheretsuari buruz, zuri buruz, Jainko Jauna, eskerrak bihurturik, phuskatu eta eman bere dizipulueri erranez : har-azue eta jan huntarik guziek,

HAU DA ENE GORPHUTZA.

Gisa berean hartu zuen ere afal ondoan bere esku saildu eta sakratuetan kalitz balios hau, berdin zuri eskerrak bihurturik, benedikatu zuen eta eman bere dizipulueri erranez : har-azue eta edan huntarik guziek,

HAU DA ENE ODOLAREN KALITZA, bethiereko testament berriarena, fedezko mixterioa, zuentzat eta bertze askorentzat ixuria izanen den Odola, bekatuen barkamendutan. Hau berriz eginen duzuen aldi guzietz, ene orhoitzapenetan egizue.

Sagara-ondoa

Horra zertako, Jauna; zure Seme Jesu Krixto gure Jaunaren pairamen dohatsuaz bai eta ere ilhunbetarik phizteaz eta zeruetarat igaite miresgarriaz orhoiturik, guk, zure zerbitzariak eta zure Eliza saildu guziak, eskaintzen dautzugun, Nausi handia, zuhauren dohain-emaitzetarik, Ostia garbi, Ostia saildu, Ostia xuri hau : bethiereko biziaren Ogi saildua eta bethiereko salbamenduaren Kalitza.

Begitarte on eta amultsu egiozute eta onhar-zkitzu Abel zure haur onaren emaitzak eta Abraham patriarkaren eskaintzak onhartu zinituen bezala, bai eta ere onhartu Melkizedek zure aphez nausiak eskaini zaitzun sakrifizio saildu, ostia garbia.

Othoi, Jainko guziz botheretsua, egizu zure Aingeru sailduaren eskuetan eremanak izan dituen emaitza hauk zure zeruko aldarerat, zure aintzinerat eta hola aldare huntarik zure Semearen Gorphutz eta Odol sakratuak hartuko ditugun guziek ukhan ditzagun zerutikako benedizione eta grazia nasaia, Jesu-Krixto gure Jaunaren bidez. Halabiz.

Hilen Orhoitzapena

Orhoit. zaite ere, Jauna, gure aintzineko zure zerbitzari fededunez orai bakean daudenez... Horier, Jauna, eta Jesu-Krixto baitan pausatu diren guzier, emozute, othoi, zure gozoan, argian eta bakean sartzea Jesu-Krixto gure Jaunaren bidez. Halabiz.

Gu ere, bekhatorosak, zure bihotz onaren ganik zerbait on igurikatzen dugun zerbitzariak, onhar gaitzazu, othoi, zure Apostolu eta Martir sailnduen aldean, Joanes, Extebe, Matias, Barnabas, Iñazio, Aletxandre, Martxelino, Piarres, Felixite eta Perpetuarekin, Agata, Luxia, Añes, Zezila, Anasztazia eta bertze zure sailndu guziekin; ez gure merezimenduen gatik bainan zuhaur urrikaldurik, onhar gaitzazu horien artean, Jesu-Krixto gure Jaunaren bidez.

Haren bidez dituzu bethi, Jauna, eskaintzen dauzkitzugu hauk egiten, biziarazten, benedikatzen eta guri emaiten.

Haren bidez eta Harekin batean eta Hura baitan, zira ohoratua eta goretsia, Jainko Aita guziz boheretsua, Izpiritu Sailnduarekin betan.

Pater Noster

Per omnia sæcula sæculorum.
AMEN.

Menderen mendetan.
Halabiz.

Othoitza

Salbatzaileak argiturik eta Jainkoak erakatsirik erran nahi dugu : Gure Aita zeruetan zarena, erabil bedi sailnduki zure izena, ethor bedi zure erresuma, egin bedi zure nahia zeruan bezala lurrean ere ; iguzu egun gure eguneko ogia ; barka zagutzu gure zorrak guk gure ganat zordun direnei barkatzen dioztegun bezala ;

Et ne nos inducas in
tentationem.
SED LIBERA NOS A MALO.

Eta ez gaitzatzula utz
tentamendutan erortzerat.
Bainan begira gaitzatzu
gaitzetik.

Othoi, Jauna, begira gaitzazu gaitz guzietarik, lehengo, oraiko, gerokoetarik ; Birjina Maria dohatsua Jainkoaren Ama, Petri eta Paulo eta Andreas Apostolu sailnduak eta bertze sailndu guziak ararteko, galdatzen dautzugu bakea ; bihotz onez emaguzu, zu urrikaldurik, egon gaiten bethi bekatutik eta nahaskeria guzietarik urrun, zurekin, Jainko eta Izpiritu Sailnduarekin batean dagon zure Seme Krixto Errege Jaunaren bidez.

Per omnia sæcula sæculorum.	Menderen mendetan.
AMEN.	Halabiz.
Pax Domini sit semper vobiscum.	Jainkoaren bakea izan dezazue.
ET CUM SPIRITU TUO.	Bai eta zuk ere.

Jesu-Krixto gure Jaunaren Gorphutzaren eta Odolaren kontsekratze et nahaste hauk on egin bezate gure arimeri bethiereko bizitzean. Halabiz.

Agnus Dei

Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.	Jainkoaren Bildotsa, munduko bekhatuak zure gain hartzen dituzuna, urrikal zakizkigu.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, miserere nobis.	Jainkoaren Bildotsa, munduko bekhatuak zure gain hartzen dituzuna, urrikal zakizkigu.
Agnus Dei, qui tollis peccata mundi, dona nobis pacem.	Jainkoaren Bildotsa, munduko bekhatuak zure gain hartzen dituzuna, emaguzu bakea.

KOMINIATU AINTZIN

Jesu-Krixto gure Jauna, zure Apostolueri erran diozute : « Bakea uzten dautzuet, ene bakea emaiten » ; ez beha ene bekatueri, bainan zure Elizaren fedeari ; huni emozu zuk nahi bezalako bakea, eman ere batasuna, menderen mendetan Errege zaudena. Halabiz.

Jesu-Krixto gure Jauna, Jainko botheretsuaren Semea, zure Aitak nahi zuen bezala, Izpiritu Sainduaren laguntzarekin eman diozu munduari bizia, zuhaur hilez ; zure gorphutz eta odol sakratuen bidez libra nezazu ene bekatu guzietarik eta gaitz guzietarik ; egizu bethi jarraik nadin zure manamenduer eta sekulan ez urrunt zure ganik ; zu Jainko Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin batean, menderen mendetan Errege zarena. Halabiz.

Jesu-Krixto gure Jauna, ez gai izana gatik, zure Gorphutzaren hartzerat noha ; ez dadila izan ene jujatzeko ela kondenatzeko bainan zu

urrikaldurik, ene gorphutz arimen azkartzeko eta sendatzeko ; zu, Jainko Aitarekin eta Izpiritu Sainduarekin batean, menderen mendetan Errege zarena. Halabiz.

Kominiatzean

